



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko azaroaren 19a

132. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Interpelazioa, politika fiskal berdeari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, bidezko trantsizio energetikoari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Interpelazioa, helduen euskalduntze-alfabetatzeari buruzko politika orokorrari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (4. or.).
- Interpelazioa, gizarte-babesaren, zaharrentzako laguntza integralaren eta zahartze aktiboaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (5. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, Baztango oinarritzko eskualdean nahiz Nafarroako herri guztietan osasun-arreta presentziala bermatzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, klima-aldaketa samurtzeko eta hari egokitzeko neurriei buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruzkoa. Ainhua Unzu Gárate andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako espetxe-osasungintzako langileriak dauzkan baliabideei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Altsasuko Otadia Gazteen Aterpetxeari atxikitako lanpostuak amortizatzeari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxearen instalazioak pribatizatzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, terrorismoa dela-eta kondenatutakoei egindako harrera publikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Navarra Music Comission proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Navarra Live Music proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

- Galdera, Vianako Andre Maria elizari eta haren balizko egokitze- eta zaharberritze-obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, kirol-instalazioei buruzko azterlanaren emaitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, bitartekaritzari eta justizia errestitatiboari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Afganistango etorkinak hartzeko prest dauden herriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, justizia errestitatiboaren zerbitzu edo programa guztietarako protokolo-esparrua bidali zaien operadore juridiko edo sozialei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, aisialdiko eskolen gaineko araudiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, COVID-19aren detekzio goiztiarrerako bizikideen eta egoitza-zentroetako langileen baheketak bertan behera uzteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, pandemian zehar Osasun Sistema Nazionalako Lurraldearteko Kontseiluaren aktei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, obesitate morbidoa eta COVID-19a dutenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren 40/2021 ebazpena, azaroaren 15ekoa, zeinaren bidez Eduardo Aranaz Jiménez jauna aldi baterako izendatzen baita Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiko Zerbitzuko Sistemen Ataleko buru (24. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Interpelazioa, politika fiskal berdeari buruzkoa.**

### *MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak politika fiskal berdeari buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak 2019ko irailaren 23an, Nafarroako Gobernuak 2019ko irailaren 24an eta Europako Parlamentuak 2019ko azaroaren 28an onetsitako klima-larrialdiko adierazpenek berretsi egiten dute klima-aldaketari eta klima-aldaketa apaltzeko neurri urgenteen premia larriari dagokienez gizartean dagoen kezka. Halatan, beharrezkoa da nazioarteko foroetan egindako planteamendu teorikoak eta adierazpen instituzionalak jarduketa-esparru juridiko desberdinetan gauzatzen joan daitezen.

Hor kokatu behar dugu, esate baterako, Klima Aldaketari eta Trantsizio Ekologikoari buruzko Foru Lege proiektua.

Berotze globalari buruzko datuak adierazgarriak dira mundu osoan. Baina baita gure erkidegoan ere, non, AEMETen arabera, berotze-joerak bat datozen inguruko herrialdeetan egindako gisa bereko ikerketetatik ondorioztatzen direnekin nahiz Europa mendebaldeko klimaren joera orokorrekin (hamarkadako 0,15-0,2 °C). Nabarmendu beharra dago ezen 1980tik aitzina asko area gotu dela berotzea.

Lan egin beharra dago klima-aldaketaren ondorioak arintzeko eta energia eredu berri baterako trantsizioa prestatzeko, karbono gutxiko ekonomian oinarritua, eskura dauden baliabideak efizientzia handiagoarekin baliatzeko gauza izanen dena, eta berotegi-efektuko gasen isurketak eragiten dituzten energia fosilen ordez energia berriztagarrien erabilera pixkanakakoa proposatuko duena. Gizartea tinko ari da hori eskatzen, eta hori bera da agenda politikoaren helbururik nagusienetako bat; izan ere –eta hau ez da esaldi soil bat–, gure planetak ezin du gehiago itxaron.

Azken urteotan zuzeneko laguntzak ezarri dira zenbait jarduketa egiteko –enpresentzat nahiz herritarrentzat oro har–, bai eta neurri fiskalen bitartezko zeharkako laguntzak ere, proposatutako helburuak alait lasterren lortzearen.

Baina, noski, horietan denetan jarri behar dugu azpimarra, eta gai izan behar dugu gure gizartearen deskarbonizazio erabatekora eramanez gaituzten estrategia berriak taxutzeko.

Hori guztia dela eta, politika fiskal berdeari buruzko interpelazio hau aurkeztu dugu, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari zuzendua.

Iruñean, 2021eko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **Interpelazioa, bidezko trantsizio energetikoari buruzkoa.**

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak bidezko trantsizio energetikoari buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTU8**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, bidezko trantsizio energetikoari buruzko honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iruñean, 2021eko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri

---

## **Interpelazioa, helduen euskalduntze-alfabetatzeari buruzko politika orokorrari buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko interpelazioa, helduen euskalduntze-alfabetatzeari buruzko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Bakartxo Ruiz Jasok, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko bozeramaileak, Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraiki, honako interpelazio hau egiten dio Nafarroako Gobernuari Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin:

Helduen euskalduntze-alfabetatzeari buruzko politika orokorrari buruzko interpelazioa.

Iruñean, 2021eko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Interpelazioa, gizarte-babesaren, zaharrentzako laguntza integralaren eta zahartze aktiboaren arloko politika orokorrari buruzkoa.**

### *BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko interpelazioa, gizarte-babesaren, zaharrentzako laguntza integralaren eta zahartze aktiboaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapide-tzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Gizarte-babesaren, zaharrentzako laguntza integralaren eta zahartze aktiboaren arloko politika orokorra.

Iruñean, 2021eko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Baztango oinarrizko eskualdean nahiz Nafarroako herri guztietan osasun-arreta presentziala bermatzeari buruzkoa.***DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Baztango oinarrizko eskualdean nahiz Nafarroako herri guztietan osasun-arreta presentziala bermatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasuneko kontseilari Santos Induráin Orduñak behin eta berriro iragarri ditu Oinarrizko Osa-

sun Laguntzari eta Arreta Jarraituari buruzko plan bat abian jartzeko ekimenak, Oinarrizko Osasun Laguntzan arreta presentziala berriz ere abian jartzea helburutzat harturik, besteak beste. Proposamenen artean etengabe errepikatzen da Oinarrizko Osasun Laguntzako osasun etxeetako baliabideak indartu behar direla.

Halere, hainbat udal ordezkariaren bidez jaso dugun informazioaren arabera, O-NOZen langile-defizit larriak pilatzen jarraitzen dute, Nafarroako oinarrizko osasun eskualde desberdinetan. Baztango oinarrizko eskualdearena da kasurik kezkarrietako bat (Erriberakoa, Zangozakoa... gehitu behar zaizkio horri), denbora gehiegi baitarama Familiako eta Komunitateko Medikuntzako eta Pediatriako langile falta gorriarekin.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

- Nola bermatuko duzu Baztango Oinarrizko Osasun Eskualdeko nahiz gure herri guztietako osasun-arreta presentziala, baldin eta bete gabeko lanpostu gero eta gehiago badago egunez egun?

Iruñean, 2021eko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## **Galdera, klima-aldaketa samurtzeko eta hari egokitzeko neurriei buruzkoa.**

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak klima-aldaketa samurtzeko eta hari egokitzeko neurriei buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayen jau-

nak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Klimari buruzko Glasgowko Goi-bileran berrikitan izandako esku-hartzean, Regions4 adierazpena sinatu zenuen, erregioetako gobernuek protagonismo eta konpromiso handiagoa izatea eskatzen duena, eta orobat adierazi zenuen Nafarroa erregio konprometitua eta aitzindaria dela klima-aldaketaren aurkako borrokan eta trantsizio energetikoan.

Zer neurri ari zarete hartzen eta etorkizunean zer ekintza aurreikusten duzue foru erkidegoan, bai klima-aldaketa samurtzeko bai hari egokitzeko?

Iruñean, 2021eko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

## **Galdera, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruzkoa.**

*AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusita 'udal-gainbalioa' izenez ezagutzen den hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga dela eta Konstituzio Auzitegiak jaulkitako epaia:

Zer egoeratan dago Nafarroako araudia eta zer urrats eginen ditu horri dagokionez Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

## **Galdera, Nafarroako espetxe-osasungintzako langileriak dauzkan baliabideei buruzkoa.**

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak Nafarroako espetxe-osasungintzako langileriak dauzkan baliabideei buruz aurkeztutako galdera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Salhaketa Nafarroa elkarteak jakinarazi duenez, Iruñeko espetxeko preso bat hil zen azaroa-

ren 8an (astelehena). Nafarroako Gobernuak espetxe arloko osasungintzaren eskumena bere gain hartu eta bi hilabetera gertatu da heriotza hori.

Presoei laguntzekoa den Salhaketa Nafarroa elkarteak honako hau zioen: “ Antza denez, hildakoaren ziegakidea izan zen gertatzen ari zenari buruzko abisua espetxeari eman behar izan ziona, ziegako interfonoaren bidez, eta espetxearen eta medikuntzako profesionalen esku-hartzea, berriz, ez zen izan halako egoera batean espero izatekoa dena bezain azkarra”.

Hortaz, espetxeko heriotza horren kasua ikusita, eta kontuan hartuta Nafarroako Gobernuarena dela pertsona horien osasunaren ardura, espetxe arloko osasungintzako eskumenak bere gain hartu dituenetik, honako hau jakin nahi dut:

- Nafarroako espetxe-osasungintzako langileriak zer baliabide dauzka, eta egokitzat jotzen al dituzu, Iruñeko espetxeko presoei osasungintzarreta duin baterako eskubidea bermatzeko?

Iruñean, 2021eko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez



## **Galdera, Altsasuko Otadia Gazteen Aterpetxeari atxikitako lanpostuak amortizatzeari buruzkoa.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, Altsasuko Otadia Gazteen Aterpetxeari atxikitako lanpostuak amortizatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier

Remírez jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Altsasuko Otadia Gazteen Aterpetxeari atxikitako langileei azaroaren 10ean bidalitako idazkian, Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaile Carlos Amatriain Busto jaunak gogora ekarri zituen Nafarroako Foru Komunitateko gazteriaren parte-hartzeari buruzko "zenbait azterlan", zeinetan oinarritu baitira profil teknikoko lanpostu berriak sortzeko erabakia hartzeko, eta horretarako beharrezkoa zen zenbait lanpostu amortizatzea Nafarroako Gazteriaren Institutuaren organigrama.

Hori dela-eta, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

- Zer azterlan dira horiek eta zer hausnarketa egin du departamentuak, ondorioztatzeko ezen beharrezkoa dela Altsasuko Otadia Gazteen Aterpetxeari atxikitako lanpostuak amortizatzea?

Iruñean, 2021eko azaroaren 11n

Foru Parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

## **Galdera, Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxearen instalazioak pribatizatzeari buruzkoa.**

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxearen instalazioak pribatizatzeari buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko Carlos Amatriainek langileen ordezkarietara adierazi zuten, Langileen Batzordeari alegia, ez daukela interesik Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxeko instalazioak mantentzeko. Aterpetxe hori dugu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren bitartez zuzenean kudeatzen duen gazteen aterpetxe bakarra.

Halaber jakinarazi zuen aterpetxea Nafarroako Gobernuaren gainontzeko departamentuei eta erakunde autonomoei eskaini zaiela.

Migrazio Politiketako Zuzendaritzak instalazioekiko bere interesa adierazi zuen, baina Nafarroako Gobernuko beste departamentu bat aterpetxeaz arduratu ezean pribatizatu egingen dela edo haren kudeaketa kanpoan kontratatuko dela baieztatu zuen.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

- Zuzenean kudeatzen duen gazteen aterpetxe bakarra bada ere, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak erabaki du Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxearen instalazioak lagatzea edo pribatizatea. Zergatik?

- Aterpetxea Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiari lagaz gero, zertarako erabiliko dira aterpetxe horretako instalazioak?

- Kudeatzea zuzenean egingen al du Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak, ala kudeaketa pribatizatzeko edo kanpoan kontratatzeke asmorik al dago?

- Instalazioen erabilera beste departamentu bati lagaz gero, zertan eragingen die aterpetxeko langile finkoei edo aldi baterako kontratatuei? Langileak aterpetxearekin batera transferituko al dira?

- Aterpetxea pribatizatu edo kanporatuz gero, aldi baterako langileen kontratuak amaiaraziko al dira? Eta langile finkoak baldin badira, zer lanpostu berritan izanen dira birkokatuak?

Iruñean, 2021eko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## **Galdera, terrorismoa dela-eta kondenatutakoei egindako harrera publiko- ei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, terrorismoa dela-eta kondenatutakoei egindako harrera publikoari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hau egin du (10-21/PES-00247), Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“1.- Gaitzesten al dituzu terrorismoa dela-eta kondenatutakoen harrera publikoak, berriki egin diren modukoak?

2.- Egokitzen al duzu legedi indarduna gogortzea, terrorismoa dela-eta kondenatutakoen

harrerak, berriki egin diren modukoak, ekidite aldera?

3.- Zigor Kodetik terrorismoa goratzearen delitua kentzearen aldekoa al zara?”

Kontseilariak honako erantzun hau ematen du:

Gutziz gaitzesgarriak iruditzen zaizkit terrorismoa dela-eta kondenatutakoen harrera publikoak, egiten diren tokian eta unean egiten direla ere. Uste dut ekintza terroristak direla-eta kondenatutako pertsonen heroi gisara harrera egiteak oso gutxi laguntzen diela damutzeko ezinbestez egin beharreko bidean, horrexek ekarriko baitu egiazko bizikidetzak baketsua.

Nire departamentuan, eta zehazki Justizia Zuzendaritza Nagusian, gizarteratzea helburu duen zigor-betearazpenaren alde lan egiten dugu, eta gizarteratzea lortzeko ezinbestekoa da kondenatutako eragin duen minaz jabetu eta horren erantzukizuna bere gain hartzea.

Gizartearen parte batek pentsatzen jarraitzen duen bitartean eragindako min hori ez dela gaitzesgarria, areago, goraiatzekoa dela, ez dugu izanen ingurune sozial egokirik ekintza terroristak egin zituztenek beharrezkoak diren pausoak eman ditzaten.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hau egin du (10-21/PES-00247), Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“1.- Gaitzesten al dituzu terrorismoa dela-eta kondenatutako harrera publikoak, berriki egin direnen modukoak?”

2.- Egokitzat jotzen al duzu legedi indarduna gogortzea, terrorismoa dela-eta kondenatutako harrerak, berriki egin direnen modukoak, ekidite aldera?”

3.- Zigor Kodetik terrorismoa goratzearen delitua kentzearen aldekoa al zara?”

Hona kontseilariak ematen duen informazioa: galderaren erantzuna urriaren 4an jaso ondoren, parlamentari jaunak errepikatu egin zuen galdera urriaren 5ean, eta hau adierazi zuen:

“Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idazki bat igorri zuen eta han lehenengo galderari erantzun zion, baina erantzunik gabe utzi zituen bigarrena eta hirugarrena.

Izan ere, idazkian ez die inolako aipamenik egiten bi galdera horietan azaldutako gaiari. Ez zuzenean, ezta zeharbidez ere.

Egiazta daitekeenez, gai erabat desberdinak dira erregistratutako galderetan jasotakoak, nahiz eta denak ekimen bakarrean sartu diren, jatorri bera dutelako (terrorismoagatik kondenatutakoei omenaldiak egitea).

Parlamentari jaunaren errepikapena dela eta, hona erantzuna:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 188. artikuluan ezarrita dagoenez,

“Foru parlamentariak galderak egin ahalko dizkiete Foru Diputazioari eta Diputazioko kideei”. Muga bakarra izanen dute 189. artikuluan ezarritakoa, alegia, “ez dira izapidera onartuko galdegilearen beraren interes hutsagatik edo beste edozein pertsona edo erakunde jakinaren interes hutsagatik egindakoak, erabat juridikoak direnak edo bilkuraldi berean izapidetu diren besteren batzuk errepikatzen dituztenak”.

Nahiz eta artikuluko horietan ez den berariaz ezartzen Gobernuari egiten zaizkion galderen azken zentzua, uler daiteke ezen, informazio eskaerak direla-eta 14. artikuluan adierazten denez, parlamentariak saiatzen direla legebiltzarreko ordezkari hautetsi moduan “beren eginkizunak hobeki betetzeko” bidea emanen dieten erantzunak lortzen.

Foruaren Hobekuntzak esleitzen dizkie eginkizun horiek (II. kapitulua, 11. artikulua). Izan ere, Nafarroako Parlamentuari esleitzen dizkion eginkizunetako bat da “Foru Diputazioaren jarduera bultzatu eta kontrolatzea”. Hori bat dator Espainiako sistema parlamentarioarekin, zeinean Gobernu bere kudeaketa politikoaren erantzule baita Diputatuen Kongresuaren aurrean. Lanelino Lavillak honako hau adierazi zuen (“El control parlamentario del Gobierno en funciones”, 2017ko urtarrilaren 24ko bilkura Zientzia Moral eta Politikoen Akademiari):

“Según el artículo 66 de la Constitución, las Cortes Generales representan al pueblo español y controlan la acción del Gobierno. En este sentido el artículo 29 de la Ley del Gobierno, en la redacción dada por la disposición final tercera, trece, de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, establece que «todos los actos y omisiones del Gobierno están sometidos al control político de las Cortes Generales». La actividad de control del Gobierno está en la esencia de la función parlamentaria, como ha destacado el Tribunal Constitucional, entre otras, en la STC 27/2011, de 14 de marzo”.

Diputatuen Kongresuak berak ere bere web orrian hau azaltzen du bere kontrol-eginkizunaz eta Gobernuko kideei egiten dizkien galdez:

“Kongresuak kontrolatu eta ikuskatzen du Gobernuaren eta administrazio publikoaren jarduketak, batik bat galdera eta interpelazioen bitartez. Galderak ahozkoak edo idatzizkoak izan daitezke eta Gobernuaren eskumenekoa den edozein gairen ingurukoak izan daitezke”.

Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra den Martín María Razquin Lizarragak “El control parlamentario del Gobierno en España” (2006) azterlanean dio kontrol eginkizunaren eremua oso zabala dela, eta gobernu-ekintzaren kontrola aipatzen du, zeinak helburu baitu ekintza hori aztertzea eta, batez ere, Gobernuaren jarrerak eta Gobernuaren menpeko Administrazioaren jarduketak salatzea. Kontrol eginkizunaren alor horretako tresnatzat aipatzen ditu, bereziki, interpelazioak, galderak eta, larritasun handiagoko gaietan, ikerketa batzordeak.

Zehatzago, egile horrek kontrol eta fiskalizazio jarduketan multzoan kokatzen ditu galderak. Kontrol eginkizunaren alor horrek, A. Manzellaren arabera, Gobernuaren ekintza politiko-administratiboa egiaztatzea eta haren erantzukizuna argitu eta zehatzea helburu duen jarduera parlamentarioa biltzen du.

Rey Juan Carlos Unibertsitateko Jesús López de Lerma Galán Konstituzio Zuzenbideko irakasleak, berriz, "El control de la actividad Parlamentaria como garantía del sistema constitucional" artikuluan Gobernuaren kontrol parlamentarioa definitzen du esanez gobernu-ekintza legebiltzarrean zaintzeko, agerian jartzeko, eztabaidatzeko eta ebaluatzeko jardura dela. Kontrol horretarako, galderak ohiko baliabideak direla adierazten du, bereziki bideratuak informazioa lortzera, egoera jakinak iritzi publikoaren aurrean nabarmentzea helburu, kontrol hutserako tresnarik onenetakoak baitira.

Horregatik guztiagatik, bistan denez, kasu guztietan esaten da legebiltzarraren kontrolaren xedetak gobernu-ekintza, Gobernuaren kudeaketa politikoa eta Gobernuaren eskumeneko gai guztiak direla, eta aurrekoari buruzko informazioa lortzeko asmoz egiten direla galderak.

Parlamentari honek egindako galderaren kasuan, Gobernuko kide baten iritzi pertsonala eskatzen da, eta haren eskumenekoak ez diren gaiei buruzko iritzia eskatu ere.

Nolanahi ere, jada azaldutako gogoeten bitartez galdera erantzunda dagoela uste dut.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

## Galdera, Navarra Music Comission proiektuari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak Navarra Music Comission proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko irailaren 24ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma (NAVARRA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak idatzizko galdera egin du (10-21/PES-00285) Navarra Music Commission proiektuari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariaren erantzuna:

Navarra Music Commission (NMC) delako baten proiektua Europar Batasunaren Next Gene-

ration funtsetako laguntza jasotzeko moduko ekintza gisa jaso zen, Nafarroako Gobernuak taxuturiko proiektuen sailean.

Kultura eta Kirol Departamentuaren asmoa da baliabide propioekin finantzatzea Navarra Music Commission-en eraketa, Nafarroan musikaren sektorea ikusgai egin, bultzatu eta sustatzeko asmoarekin. Gure ustez NMC abagune dugu, musika-industriaren arloko hazkunde, enplegu-sorkuntza, ekintzailtza, aholkularitza, hedapen eta eragin ekonomikoaren maximizazioarekin zerikusia duten zertzeladak uztartzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## Galdera, Navarra Live Music proiektuari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak Navarra Live Music proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko irailaren 24ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak idatzizko galdera egin du (10-21/PES-00286) Navarra Live Music! proiektuari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariaren erantzuna:

Navarra Live Music! Turismo eta Kultura zuzendaritza nagusiek sorturiko ekimena dugu, xede duena Nafarroako musika-industriaren garapen estrategikoa sustatzea eta, gainera, horren sormen-eragina, eragin ekonomikoa eta Foru Komunitatearen irudiaren alorreko eragina indartzea eta ikusgaitzea. NICDO enpresa publikoa du kudeatzaile, eta honako ekintza hauek egin dira orain arte:

– Apirilean [www.navarrallivemusic.com](http://www.navarrallivemusic.com) web orria eratzea, lehen fasea duela Nafarroako musika-eragileen inskribatzea, atlas bat egitea helburu.

– Proiektua ezagutarazteko prentsa-oharra: <https://www.navarra.es/eu/albisteak/2021/05/12/navarra-live-music-nafarroako-musika-industria-sustatzeko-ekimena-sortuda?pageBackId=363032&back=true>

– Navarra Live Music! proiektua musikaren sektoreari aurkeztea FITUR Nazioarteko Turismo Azokan: <https://www.navarra.es/eu/noticias/2021/05/20/el-camino-de-santiago-y-la-cultura-en-vivo-platos-fuertes-de-la-jornada-de-hoy-en-fitur?pageBackId=363032&back=true>

– 'Bira Nafarroan barna' programa eratzea, sortzen ari diren talde eta artisten ikusgaitasuna indartzeko, abiapuntu gisa harturik Navarra Live Music!-en webgunean izen emandako 25 talde

eta artistaren aurretiazko hautaketa bat, egina "sortzen ari diren" etiketa zentzurik zabalenean harturik, halako moldez non estilo-mordoa aintzat hartzen den, trap eta rocketik flamenkoraino eta poperaino <http://www.culturana Navarra.es/eu/bira-nafarroan-barna>

– 'Bira Nafarroan barna' zikloko programazioaren aurkezpena

<https://www.navarra.es/eu/albisteak/2021/06/17/bira-nafarroan-barna-programak-30-herritan-sortzen-ari-diren-17-talderen-emanaldiak-eskainiko-ditu?pageBackId=363032&back=true>

– 'Bira Nafarroan barna'ko programazioaren komunikazio-kanpaina, euskarri grafikoetan Navarra Live Music!-en logotipoa txertatzen dela.

– Sustatzaile Musikalen Elkarteak bere bazkideen artean banatzen duen APM urtekarian presentzia ohargarria (129-137. orrialdeak). 2.000 ale banatzea sektoreko enpresa eta profesionalen artean 45 hiritan. Sarean eskuragarri daude, horretarako eskaera eginda.

– Lankidetzan aritzea APM Batzarra irailean Iruñean egitearekin, haren komunikazio-euskarrietan Navarra Live Music! marka agerturik.

<https://www.apmusicales.com/el-sector-de-la-musica-en-vivo-se-reune-en-pamplona-en-el-marco-de-la-xxi-asamblea-general-de-apm/>

– APMren batzarrean eginiko zenbait jardueratan parte hartzea, Navarra Live Music! proiektua ezagutarazteko. Rebeca Esnaola kontseilariak, inaugurazioan; NICDOko zuzendari kudeatzaile Ramón Urdiáinek, 'Deseskalatzea, protokoloak eta normaltasunerako itzulera' venue partnersen mahaian; eta Turismo zuzendari nagusi Maitea Ezkutarik eta Kulturako zuzendari nagusi Ignacio Apezteguíak, 'Musika zuzenean eta turismoa. Pandemia aurretik eta ondotik' mahaian.

– Navarra Live Music! erakustoki batean egonen da BIME 2021en, Bilbon, urriaren 27tik 29ra.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## Galdera, kirol-instalazioei buruzko azterlanaren emaitzei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak kirol-instalazioei buruzko azterlanaren emaitzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko irailaren 24ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

PSN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak idatzizko galdera hau egin zuen (10-21/PES-00287): Kultura eta Kirol Departamentuak noiz jakinaraziko ditu kirol instalazioei buruzko azterlanaren emaitzak?

Noiz hasiko da taxutzen Gobernuak orain dela zenbait hilabete iragarri zuen kirol instalazioei buruzko plana? Hona hemen Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak horri buruz emateko daukan informazioa:

Kultura eta Kiroleko kontseilariak 2021eko urriaren 26rako aurreikusita dagoen agerraldian, zeina kontseilariak berak eskatua baita, emanen die parlamentariei azterlanaren emaitzen eta Kirol instalazioen Plan Zuzendariaren berri.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## Galdera, Vianako Andre Maria elizari eta haren balizko egokitze- eta zaharberritze-obrei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Vianako Andre Maria elizari eta haren balizko egokitze- eta zaharberritze-obrei buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 24ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-21/PES-00289 galdera idatzia egin du Vianako Andre Maria eliza egokitzeko eta zaharberritzeko

balizko obrak jorratze aldera Artzapezpikutzarekin eginiko bileren kopuruari buruz. Hauxe da Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernua-Eliza Katolikoa batzorde mistoak 2020ko otsailaren 25ean eginiko osoko bilkuran, 3. puntuan, etorkizunera begirako lankidetzaproiektuei buruzkoan, laburki jorratu zen gaia; hortaz, erabaki zen hurrengo bilkurako gai-zerrendan berariazko gaia izan zedila. Bilkura hori joan den irailaren 17an egin zen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## Galdera, bitartekaritzari eta justizia errestituratuari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak bitartekaritzari eta justizia errestituratuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 1eko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hau egin du (10-21/PES-00290), Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Legegintzaldi hau hasi zenez geroztik zer ekintza edo ekimen jarri dira abian gure erkidegoan bitartekaritzaren eta justizia errestituratuaren arloan azken hamabost urteotan sortu diren ekimenak balioan jarri eta bultzatuko dituen araudi bat taxutzeko?”

Honako erantzun hau ematen du:

Bitartekaritzaren eta justizia errestituratuaren arloan Nafarroan egin dena bultzatu eta balioan jartzeari buruz mintzatzean, Departamentu honek azken 15 urteotan izan diren ekimenak hartzen ditu erreferentziatzat. Horretarako arrazoia da 2006ko urtarrilaren 1ean ekin ziola bere bidea Iruñeko Epaitegietan egiteari Zigor-arloko Bitartekaritza Zerbitzuak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bultzatu zuen esperientzia pilotuen programaren babesean. Proiektua Iruñeko Instrukzio 3. Epaitegian ezarri zen, eta Nafarroako Gobernuo Justizia Zuzendaritza Nagusiaren babesa izan zuen, zeinak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu baitzuen ANAME-Nafarroako Bitartekaritza Elkartearekin, bitartekaritza-prozesuak aurrera eramane zituen entitate gisa. Esperientziaren arrakastaren ondorioz, urteetan zehar finkatzen joan zen. 2007an zigor-arloko epaitegi guztietara hedatu zen, eta Justizia Zuzendaritza Nagusiko aurrekontu-zuzkidura batekin finantzatzen hasi zen.

2018an zerbitzu publiko bilakatu zen bitartekaritza, zerbitzu-kontratu administratibo bat egin baitzen, ANAMERi esleitua, kasuko lizitazio-prozesua egin ondoren. Xedetzat zuen justizia

errestituratu boko zerbitzuak ematea, zigor-arloan, Iruñeko eta Agoizko barruti judizialeko epaitegi eta auzitegietan.

Alde horretatik, kontratu bat egoteak eta kontratu hori modu onean bete izanak ahalbidetu dute justizia errestituratu boko finkatzea justizia arruntaren osagai gisa, barruti judizial horietako epaitegi eta auzitegi guztietara hedatuz. Kontratu horrez gain, harrezkero akordioak egin dira Nafarroako gainerako barruti judizialeko abokatu-elkargoekin. Abokatu-elkargo horiek hitzarmenak egin dituzte psikologia eta gizarte-laneko elkargoekin, eta profesional ezberdinen artean eginiko baterako bitartekaritzaren eredu bat garatu dute. Halaber, ekonomisten elkargoarekin ere lankidetzaren hitzarmen bat egin zen. Horregatik guztiagatik, gaur den egunean foru lurralde osoan eskaintzen da justizia errestituratu boko prozesuetan parte hartzeko aukera, eta, gainera, bitartekaritzan eskarmentua duten profesionalen multzo bat eskueran dago, diziplina ezberdinetakoak.

Justizia errestituratu bokoaren garapena eta sustapena kokatzen da bai Nafarroan bai estatu-mailan nahiz globalki justizia-politika publikoak jasaten ari diren eraldaketan testuinguruan.

Horrela, 2020aren hasieran, departamentuak dei egin zion unibertsitate- eta espetxe-alorretik nahiz hirugarren sektoretik zetozen espezialisten talde bati, Nafarroako zigor-exekuzioaren ereduaren ildo estrategikoak taxutu zitzaizkien. Ildo horiek jasotzen dituen dokumentua departamentuarekin lankidetzan prestatu zen urtebetean, eta 2021eko otsailean aurkeztu zen. Dokumentu horrek oinarriko printzipiotzat seinalatzen du “ikusmolde errestituratu boko baten ezarpena”, eta “ikusmolde errestituratu boko moderno bati heldu” beharra aldarrikatzen du, oinarriturik erreparazio, arduraduntze eta ukituriko pertsona eta erkidegoen parte-hartze kontzeptuen planteamendu orekatuan, zigor-alorreko exekuzio-eredu osoaren ezaugarri transbertsal gisa”. Horrez gain, 2. ildo estrategikoko ekintza giltzarriak ezartzen dira. Justizia errestituratu boko intrajudiziala eta komunitarioa sustatzea.

Taxuera horri jarraikiz, eta oinarri harturik Nafarroak zigor arloko prozesuaren fase guztietan, exekuzioa barne, justizia errestituratu boko bultzatu eta koordinatzeko dituen eskumenetan, Nafarroako Zigor Betearazpeneko eta Justizia Errestituratu boko Zerbitzua (NAZBEJEZ) eratzen da Justizia Zuzendaritza Nagusiaren barrenean.

Zerbitzu hori ez da arduratzen prozesu errestitutiboak zuzenean egiteaz, baizik eta horretarako badiren zerbitzuak koordinatzeaz.

Estatu-mailan, aurrerapauso horiek bikain doitzen zaizkio Justizia Ministerioaren 2030 Justizia Planari. Plan horretako neurrien artean dago “liskar-ebazpenerako ordezeko zerbitzuak sustatzea, epaitegi eta auzitegi-tako auzi-kopurua jaisteko lagungarri gisa. Ideia da jurisdikzio-arekiko paraleloa eta osagarria izanen den sistema bat tankertzea, herritarrei beste bide bat eskainiko diena beren arteko desadostasunak ebazteko”. Gatazka-ebazpenerako bitarteko egoki horien alde jurisdikzio zibilak eta merkataritzakoak egindako apustua bat dator, halaber, zigor-alorrean justizia errestitutiboa sustatzearekin.

Horrekin bat, justizia errestitutiboaren eredu berria zuzendurik dago lortzera Nafarroa osoan eskuragarri egon daitezen, homologagarria den moduan, bitartekaritza eta komunitarioagoak diren beste errestitutazio-lanabes batzuk, zirkuluak kasu, delitu guztietarako, prozesu-fase guztietan, eta are salaketa baino lehenagotik. Alegia: asmoa da sistema integral bat eraikitzea, prozesu errestitutiboaren egitea koordinatuko duena, maila komunitariotik hasita, non xedea baita delituak prebenitzea eta gatazka sozialen judizializazioa murriztea, harik eta zigor-betearazpeneraino, biktimen erreparazioa sustatze aldera eta zigortuen gizarteratzea zigor-betetzearen aldiari erdiesteko.

Departamentuak ildo horretan duen jarduna lau bektore nagusik markatzen dute, eta horiek oinarritzen dute galderaren xede den araubidea prestatzeko prozesua: eguneratu, inplikatu, hedatu eta komunikatu.

**EGUNERATU:** Indarreko araudia eguneratzea

1. Delitu-biktimaren Estatutuak xedatutakora egokitzea (4/2015 Legea, apirilaren 27koa).

Estatutuak adierazten duen bezala, Justizia Errestitutiboaren Zerbitzua (JEZ) estu koordinatzen da Biktimei Laguntzeko Bulegoarekin eta Zigor-betearazpeneko Atalarekin, zerbitzu horietako bakoitzaren autonomia funtzionala mantenduz. Gainera, zerbitzu-lizitazio berrirako baldintza-pleguak –gauden urte honekin batera iraungiko da egungo kontratua– xedatzen du JEZeko lagunpertsonek bitartekaritza bestelakoak diren beste prozesu errestitutibo batzuk egin beharko dituztela, jasota daudenak bai Estatutuan, bai horren transposizio-iturri den europar zuzentarauan ere; adibidez, konferentziak eta zirkuluak.

Ildo beretik, “zigor-bitartekaritza” terminoaren ordezt “prozesu errestitutiboak” jartzen da; eta “bitartekari”, “lagunpertsonek”ren ordezt.

Bestalde, Delitu-biktimaren Estatutuak betebehargarri gisa ezartzen du biktimei Justizia Errestitutiboaren Zerbitzuen berri ematea, agintariekin harremanetan lehenbizikoz hasten diren unetik. Auzipetutako pertsoneri buruz gauza bera ezartzen ez den arren, Nafarroan xedatzen da haiei ere lehenbiziko harremanaren unetik berri ematea.

2. Zigor Kodeko eta Prozedura Kriminalaren Legeko aldaketekidei doitzea

2015ean zenbait aldaketa egin ziren, hala prozesalak nola substantiboak, pisuzko eragina dutenak Protokoloan (4/2015 Legea, 1/2015 LO eta 41/2015 Legea, nagusiki). Hori dela-eta, Protokoloa aldatzea proposatzen da.

Esate baterako, aipatu beharrekoak dira, besteak beste, guztiz nabariak diren zertzelada batzuk, hala nola “falta” terminoaren ordezt “delitu arin” jartzea, edo zigor-etetea birmoldatzea.

3. Europako Kontseiluaren 2018-9 Gomendioari doitzea, zeinak zigor-afaretako justizia errestitutiboa jorratzen baitu.

Lehenago adierazi dugun bezala, kontratu berriaren lizitazioak barneratu egiten du zigor-bitartekaritza justizia errestitutiborako paradigma-aldaketa funtsezkoa, errestitutiboagoak direla erakutsi duten praktikak barne harturik, hala nola zirkulu errestitutiboak, zeinek komunitatearen inplikazio handiagoa ekartzen baitute.

**INPLIKATU:** eragile juridiko guztiak eta komunitate guztia inplikatzea

1. Justizia errestitutiboaren garapena erakundearteko koordinaziorako ahalegin handi batean oinarritzen da, eta ahalegin hori indartu nahi da. Alde horretatik, lanean dihardugu honakoen arteko koordinazioa areagotzearen:

– Organo judizialak. - Ministerio Fiskala. - Justizia Zuzendaritza Nagusia, Zigor-betearazpeneko eta Justizia Errestitutiboko Zerbitzuen eta Justiziako Gizarte Zerbitzuen bitartez.

– Prozesu errestitutiboak aurrera eramaten dituzten entitateak, jada zehazturiko lanbide-elkar-goak barne.

Ildo horretan, garrantzi berezia hartzen du Ministerio Fiskalaren zereginak, eta horrek eraman gaitu harekiko lankidetzara eta JEZaren eta fiskaltza bakoitzaren artean nahitaezkoa, aldizkakoa eta aisea izanen den komunikazio baten beharra ikustera, Justizia Errestitutiboaren Batzordearen baitakoaz gain, inplikatuta dauden eragile guztiak barne harturik. Ohartarazi beharra dago jadanik bikaina dela organo judizial, Ministerio Fiskal eta lanbide-elkargoekiko lankide-



tza, eta kontua dela lankidetzara hori indartzea eta are aiseagoa izan dadin.

2. Bestalde, Europako Kontseiluaren 2018-8 Gomendioan jasotzen den justizia errestituatiboaren kontzeptua erabiltzeak esan nahi du beharrezkoa dela pertsona gehiago inplikaraztea prozesu errestituatiboetan. Zirkulu errestituatiboek komunitateko kideen parte-hartzea aurreikusi behar dute; horregatik, lan-jomuga nabarmenki zabaltzen da.

3. Azkenik, JEZaren eta Zigor-bezearazpeneko Atalaren nahiz Biktimei Laguntzeko Bulegoaren arteko koordinazioak modua eman behar du biktimek eta biktimatzaileek behar dituzten baliabideetarako igorpenak egiteko, laguntza- eta gizarteratze-sareak ezarririk. Horrela lortuko da justizia errestituatiboa lagungarri izatea zenbait zerbitzuekiko koordinaziorako, hala nola osasun mentala, prestakuntza, terapia, gizarteratzea eta abar.

**HEDATU:** Delitu guztietara eta prozesuaren fase guztietara hedatzea

Zuzentarauari eta Biktimaren Estatutuari jarraikiz, Justizia Errestituatiboko Zerbitzuek lehentasun gisa hartu behar dute biktimaren interesak eta beharrezkoak asetzea eta egin zaion kaltea konpontzea; betiere, beste inolako kalte gehigarriarik egin gabe. Gainera, Europako Kontseiluaren Gomendioak dio ezen "justizia errestituatiboak interes orokorreko zerbitzu" behar duela izan. "Delituaren motak, larritasunak edo kokaleku geografikoak ez dute, beren horretan eta bestelako hausnarketarik ezean, eragotzi behar biktimei eta kalte-egileei justizia errestituatiboa eskain dakien" (18. artikulua).

Horregatik, "justizia errestituatiboko zerbitzuek eskuragarri egon behar dute zigor-alorreko justizia-prozesuaren fase guztietan. Agintariak eta kasuko zuzenbide-profesionalek behar adinako informazioa helarazi behar diete biktimei eta kalte-egileei, haiek erabaki ahal izan dezaten ea parte hartu nahi duten ala ez. Agintari judizialek edo zigor-justiziako erakundeek zigor-justiziako prozesuaren edozein unetan zilegi dute igorpenak egitea, eta horrek ez du baztertzeko nork bere burua justizia errestituatiboko zerbitzu batera bideratzeko eginiko balizko eskaintza" (19. artikulua).

Halatan, ikusmolde-bilakaera bat egon beharko litzateke, halako moldez non justizia errestituatiboari larritasun txikiaren delituetarako bereziki proposa izateari iriztetik, zinetan zilegi baliatzeke oportunitate-printzipioa edo prozesuaren amaitze aurreratua (arau-hauslearen onura ardatz hartzen duen eredu), ibilbide bat egiten baita biktimaren interesa ardatz hartzen duen ikusmolde batera, delituaren larritasunarengatik igorpenaren automugapenik egon gabe.

Ondorioz, igorpen-irizpideek honakoak hartu behar dituzte kontuan:

Prozesu errestituatiboaren helburu nagusia da delituetatik eratorritako kalteen erreparazio material eta moral egokia lortzea.

- Biktimaren segurtasunarentzat arriskurik ez dagoela eta birbiktimitazio-arriskurik ere ez dagoela ebaluatzea; beharrezkoa bada, Biktimei Laguntzeko Bulegoarekin koordinatuta.

- Igorpena posible izatea delitu guztietan (legeak debekatzen dituen horietan izan ezik) eta prozesuaren fase guztietan.

Prozesuaren faseei dagokienez, gaur egun justizia errestituatiboko programa bereziak abian daude betearazpenean, hala askatasungabetezkoak ez diren zigor eta neurrietan nola espetxe-zigorrean.

Gainera, JEZek zilegi izanen du gatazka-judizializazioaren aurreko kasu komunitarioetan ere jardutea.

**KOMUNIKATU:** Gizarteari komunikatzea

Orain arte azaldutako guztiak beharrezko du gizarteari begirako sentsibilizazio- eta dibulgazioz ere garrantzitsu bat, gizartea eredu honen parte bihurtzeko. Premia hori Europako Kontseiluaren Gomendioan aitortzen da, esaten denean ezen "gobernu nazionalek nahiz lokalek, agintari judizialek eta justizia errestituatiboko nahiz zigor-justiziako erakundeek sustapen-jarduerak egin behar dituzte, publiko orokorrak hobeto ezaugut dezan justizia errestituatiboa" (65. artikulua), eta "kontsulta erregularrak egin behar dira agintari judizialen, justizia errestituatiboko eta zigor-justiziako erakundeen, zuzenbideko profesionalen, kalte-egileen eta biktimak ordezkatzu diharduten taldeen eta komunitateen artean, justizia errestituatiboaren esanahia eta helburua guztiek ulertu dezaten ahalbidetzearren" (55. artikulua).

Horregatik, JEZen lanaren parte izan behar da jardunaldiak, topaketak eta prestakuntza-jarduerak egitea.

Parlamentari jaunak egiaztatu ahalko duen bezala, galdera honen erantzunak zerikusi handia dauka parlamentari horrek berak eginiko 10/21 PEI-00844 zenbakidun informazio-eskariarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetz.

Iruñean, 2021eko urriaren 22an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria, Eduardo Santos Itoiz

## Galdera, Afganistango etorkinak hartzeko prest dauden herriei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak Afganistango etorkinak hartzeko prest dauden herriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 1eko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hau egin du (10-21/PES-00291), Nafarroako Gobernuak Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“1. Zer herrik adierazi diote Nafarroako Gobernuari prest daudela talibanengandik ihesi Afganistandik alde egin duten pertsonak hartzeko?”

2. Toki entitate horiek zer zerbitzu eskaini dituzte?”

3. Nafarroako Gobernuak nola taxutu edo bideratuko ditu eskaintza horiek?”

Honako erantzun hau ematen du:

Nafarroako udalerrri ezberdinek Afganistanen bizi den giza drama dela-eta duten elkartasuna ez

da huts-hutsean neurtzen herrialde horretatik talibanengandik ihes eginez atera diren pertsonen harrerarako baliabideak esanbidez eskaini izana besterik aintzat hartu gabe. Baiezta dezaket udal ordezkariekin izan ditudan elkarrizketa ugarietan modu ohargarri askoan sumatu izan dela elkartasun hori, bai eta bertako biztanleena ere.

Zure galderari zuzenean erantzunez, eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaz denaz bezainbatean, gaurko egunez Berriozarko herriaren esanbidezko eskaintza jaso da, bertako udalak formalki adierazia. Zehazki, helarazi zaigu bertako udala prest dagoela harreran laguntzeko, gizarte, kirol, kultura eta beste arlo batzuetako baliabideak eskainiz, lagungarri izan daitezkeenak xede garrantzitsuetarako, hala nola Afganistandik lekualdaturiko pertsonen integrazioa eta gizarteratzea.

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak eskaintza hori jaso eta Gurutze Gorriari eta CEAR erakundeari helarazi die, parlamentari jaunak ondo dakien bezala horiexek baitira pertsona horien harrera kudeatzeko ardura daukatenak, Estatuaren eskumeneko programa baten bitartez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 22an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

## **Galdera, justizia errestituratuaren zerbitzu edo programa guztietarako protokolo-esparrua bidali zaien operadore juridiko edo sozialei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, justizia errestituratuaren zerbitzu edo programa guztietarako protokolo-esparrua bidali zaien operadore juridiko edo sozialei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 1eko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak, Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak eginiko galdera hauek (10-21/PES-00292) direla-eta:

1. Zer operadore juridiko edo sozialei bidali zaie justizia errestituratuaren zerbitzu edo programa guztietarako protokolo-esparrua?

2. Zer bidetatik eta zein egunetan bidali zaie horietako bakoitzari?

3. Zer operadore juridiko edo sozialei bidali nahi zaie baina oraindik ere ez zaie bidali?

Honako erantzun hau ematen du:

Parlamentari jaunak erantzunaren parte handi bat PEI-00884 informazio-eskariari nire zuzendaritzapeko departamentuak jada emandako informazioan jasoa aurkituko du.

Justizia Errestituratuaren zerbitzu edo programa guztietarako esparru-protokoloa 2021eko ekainaren 15ean bidali zitzaion Justizia Errestituratuaren Batzordeari.

Batzorde horretan daude Iruñeko epaitegiaren zerbitzuaren kide Mari Paz Benito Osés, Iruñeko

3. instrukzio-epaitegiaren titularra; halaber, Elena Cerdán Urra eta Ana Marcotegui Barber fiskalak, Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiak; Nafarroako Gobernuako Justiziako zuzendari nagusi Rafael Sainz de Rozas; Jorge Ollero, Zigor-betearazpeneko eta Justizia Errestituratuaren Zerbitzuko zuzendaria; eta Zigor arloko Bitartekaritza Konpontzaileko Zerbitzuko koordinatzaile Manuel Ledesma.

Halaber igorri zitzaion Izaskun Gartzaron Zudaire Biktimen Arretarako Bulegoaren ardurdunari eta Epaitegien arteko Bitartekaritza Bulegoko buru Esther Martínez Silguerori.

Esparru-protokoloak justizia errestituratuaren hartzeko ardatz (zigor-arloa); eta lehenbizi Justizia Errestituratuaren Batzordeari igortzearen arrazoiak da gatazka-ebazpen modalitate honen bideragarritasuna ziurtatze aldera epaileekiko eta fiskaltzarekiko interakzioak hartzeko duen egiturazkotasuna. . Horrenbestez, lehenik beren ekarpenak jasotzeko eta, haiekin, gainerako eragile juridiko edo sozialei ezagutarazteko asmoarekin bidali zitzaion.

Hilabete igarota, eta abuztuko oporraldia errespetaturik (orduan hartu ohi baitituzte oporrak abokatutza eta epailetzako profesionalek), abuztuaren 31n protokoloaren bigarren bertsio bat bidali zitzaion, Biktimen Arretarako Bulegoak eginiko aldaketa txiki batzuekin, Nafarroako abokatu-elkargoari, haiekin arlo honetako lankidetzahitzarmen bat baitago. Parlamentari jaunak esparru-protokoloaren bi bertsioak eskuragarri dauzka lehen aipaturiko informazio-eskarian.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 22an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak: Eduardo Santos Itoiz

## Galdera, aisialdiko eskolen gaineko araudiari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak aisialdiko eskolen gaineko araudiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 14ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatzizko galdera bat egin du (PES-00311), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

1.- Nafarroako Gobernuak aurreikusita al du, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bidez, aisialdiko eskolen araudia eta eskola horiek eskaintzen dituzten ikasketak egungo errealitatera egokitzea?

2.- Baiezkoan, zer urrats egin dira orain arte eta zer urrats aurreikusten da egitea? Egindakoen zerrenda eta egindakoen epeak jaso nahi nituzke.

Gazteriaren Lurraldearteko Kontseiluak 2012ko ekainaren 21ean hartutako erabakia betetik, zeinaren bidez onetsi baitzuen autonomia erkidegoetako gazteria-erakundeek nork bere aisialdiko prestakuntzaren araudia doitu zezala lanbide-kualifikazioak argitaratu ondoren sorturiko egoera berrira, Nafarroako Gazteriaren Institutuak lanean dihardu gainerako autonomia-erkidegoekin 2020tik, lanbide-kualifikazioak berrikusteko partaidetzazko prozesuan, INCUAL-Kualifikazioen

Institutu Nazionalak hezkuntzako aisialdiari buruzko kualifikazioak eguneratzeko eginiko eguneratze-prozesua adostu eta bertara ekarpena egiteko. INCUAL dugu Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala zehaztu, prestatu eta eguneratuta mantentzearen arduraduna.

Prozesu honen helburuak izan dira gazteria alorrean oinarritzko titulazio-sistema amankomun bat xedatzea eta gazteria-titulazioen elkarreko-kozimizendurako eta homologazio automatikorako protokolo bat adostea, halatan mugikortasuna errazteko, lanbide-jarduna lurralde osoan ahalbidetzeko eta enplegu- eta hezkuntza-zerbitzuek eta kasuko europar erakundeek gazteria alorretik jaulkitzen diren tituluak errekonozitzeko oinarriak ezartzeko.

Une honetan, titulazio horiek Nafarroan arautzen dituen foru dekretua gaurkotzeko prozesuari ekitera goaz, gaur egungo errealitateari egokitzearren; horretarako, akordioa 2012tik sinatuta egon arren aurreko legegintzaldietan hasi edo jorratu gabe zegoen prozesu bati ekinen diogu. Arau-eguneratze prozesu hori partaidetza bidez egingen da, halako moldez non aintzat hartuko baita zeresana duten eragile eta entitateen, aisialdi-eskolen, gazteen beren eta abarren iritzia. Prozesua datozen hilabeteotan burututa egotea espero da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 15ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **Galdera, COVID-19aren detekzio goiztiarrerako bizikideen eta egoitza-zentroetako langileen baheketak bertan behera uzteari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19aren detekzio goiztiarrerako bizikideen eta egoitza-zentroetako langileen baheketak bertan behera uzteari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-21/PES-00248), jakin nahi baitu “noiz utzi zitzaion baheketak egiteari”. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Noiz utzi zitzaion zehatz-mehatz baheketa horiek egiteari?

Unitate Soziosanitarioa sortu zenetik (2020ko maiatza) ez zaio utzi zentro soziosanitario eta erlijio-kongregazioetako egoiliar eta langileen baheketak egiteari COVID-19aren detekzio goiztiarrerako, proba diagnostikoen bitartez. Horrela langileak babesten dira eta gaitzaren hedapena mugatzen da hala lan ingurunean nola eragindako pertsonen familia eta gizarte ingurunean. Baheketa horiek egin dira aldiari behin eta/edo egoitza-zentroetako egoiliar edota langileen artean kasuren bat agertu denean.

Zergatik utzi zitzaion egiteari?

2021eko maiatzaren 20tik aurrera, kontuan izanik gizarte eta osasun langileen arteko txertaketa portzentaje handia (>% 85) eta egoera epidemiologikoa (ikus Asteroko Txosten Epidemiologikoa 2020-2021), txertatu gabeko langileei hamabostean behin egiten zitzaizkien PCR bidezko baheketak eten ziren, besterik ez.

– Asteroko Txosten Epidemiologikoa 2020-2021 (maiatzaren 17tik 23ra bitartekoa):

[http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/28606C91-1431-4CF9-9D2A-A499BCC8E47E/472131/InformeEpidemiologicoSemanal20\\_2022.pdf](http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/28606C91-1431-4CF9-9D2A-A499BCC8E47E/472131/InformeEpidemiologicoSemanal20_2022.pdf)

Egoitza-zentro batean positibo bat agertu ondorengo baheketei eutsi egin zaie baita transmisio txikiko uneetan ere. Baheketetan PCR proba egiten zaie kasuan kasuko bizikidetzak edo sektorialitateko egoiliar eta langileei (kontaktua estua izan gabe ere), eta positibo gehiago agertuz gero, egoitzako guztiei egiten zaie PCR proba.

Nafarroako Gobernuak txosten teknikorik al du, egoitza-zentroetan baheketak egiteari uztea gomendatzen zuenik?

Osasun Departamentuak erantzun honetako aurreko puntuetan azaldutakoaren arabera egin zituen bere jarduketak, eta aintzat hartu zituen honako dokumentu hauek:

– Osasun Ministerioaren dokumentazio orokorra:

<https://www.mscbs.gob.es/eu/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos.htm>

“Estrategia de detección precoz, vigilancia y control de COVID-19” 2021eko otsailaren 26an eguneratua. E apartatua: Baheketa bidezko azterketak (20. eta 21. orrialdeak). Baheketak egiten dira birusaren transmisio oso handia denean baheketa xede den eremu geografikoan edo populazioan.

– Oinarrizko Osasun Laguntzako dokumentazio espezifikoa egoitza-zentro soziosanitarioetarako:

- “Test diagnostikoen prozedura. egoitza-zentro soziosanitarioetan. 2021eko ekaina”. Nola jokatu asintomatikoekin (4. eta 5. orrialdeak)

- “COVID-19aren jarraipen buletina egoitza-zentro soziosanitarioetarako”, 2021eko ekainaren 3koa. Test diagnostikoen dokumentuari buruzko informazioa (5. orrialdea).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## Galdera, pandemian zehar Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluaren aktei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, pandemian zehar Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluaren aktei buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (1021/ PES-00250). Horren bidez informazioa eskatzen du "Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluaren aktei buruz". Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Autonomia-erkidegoek elkarrekin eta Osasun Ministerioarekin izandako komunikazioa eta lankidetzaren bizi-bizia eta etengabea izan da pandemiako hilabete hauetan. Lurraldearteko Kontseiluak asteroko bilera bereziak egin ditu, eta garrantzi handiko foroak izan da informazioa trukatzeko eta erabakiak batera hartzeko.

Ministerioak adierazi duenez, administrazio prozedurarekin zerikusia duten gaiei dagokienez, Kontseiluaren bilera arruntetan ematen da akten berri. Aurrez aurreko bilerak dira, eta pandemiak horrelakoak egitea oztopatu du, baina berreskuratzeko joan dira. Bilera berezi telematikoak, gainera, Osasun Ministerioak grabatu egiten ditu.

Horiek horrela, funtsezko kontua haxe da, oso zabalak izan direla, eta orain ere badirela,

lankidetzaren, gardentasuna eta elkarlana, eta hori bi noranzkoetan gertatu dela: bai Osasun Ministerioak autonomia-erkidegoei egin dizkien proposamen eta planteamenduetan, baita autonomia-erkidegoek –tartean Nafarroa dela, bere jardun aktibo eta proaktiboarekin– Ministerioari eta beste autonomia-erkidegoei helarazi dizkieten horietan ere.

Batzuek eta besteek behin eta berriz eta askotariko bideetatik eman dituzte aditzera onartutako neurriak eta erabakiak, aintzat harturik, ez bakarrik erabakien gardentasunak praxi politikoaren ikuspuntutik duen garrantzia, baita interes praktikoa ere, alegia, gai askoren berri ahalik eta gehien zabaldu behar zela biztanleen artean, osasun publikoaren arloko interes orokorreko gaiak izateagatik. Ildo horretan, erabaki eta gomendioen formalizazio zehatzaz harago –askotariko euskarriak izan baitituzte, zure galderan aipatu dituzun aktez gain–, uste dut iritzi zabaldua dela, Nafarroan behintzat, Lurraldearteko Kontseiluak berak eta autonomia-erkidegoen arteko harremanek balio izan dutela kogobernantzaren alorrean aurrera egiteko eta koordinatutako gutxieneko batzuen beharra aitortzeko –eskumen-eremu guztiak errespetatuz–, pandemia oso korapilatsu bat elkarlanaren bidez kudeatzeko, autonomia-erkidegoetako gobernuen joera ezberdinak eta eztabaida logikoa piztu duten gai edo une zehatzak gaindituta, baina, denak oinarritzeko posizio beretik abiatuta, elkarrekin erabaki egokienak hartzen ahaleginduz biztanle guztien osasunaren onerako, ingurune konplexu eta aldakor batean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## Galdera, obesitate morbidoa eta COVID-19a dutenei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak obesitate morbidoa eta COVID-19a dutenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko irailaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-21/PES-00255), jakin nahi baitu “Nafarroan COVID-19aren zenbat gaixo egon diren ZIUan hilabete bakoitzean obesitate morbidoa ere bazeukatenak, pandemiaren hasieratik, eta Nafarroako Gobernuak zer datatan erabaki zuen obesitate morbidodunak txertalehentasuneko talde gisa sailkatzea, adina gorabehera”. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak eman beharreko informazioa:

OBSITATE MORBIDOA DUTEN ETA COVID-19AREN  
ONDORIOZ ZIU-AN EGON DIREN PAZIENTEAK

Urtea	Hilabetea	Zenbat
2020	MARTXOA	
	APIRILA	
	MAIATZA	
	EKAINA	
	UZTAILA	
	ABUZTUA	1
	IRAILA	
2021	URRIA	1
	AZAROA	3
	ABENDUA	1
	URTARRILA	4
	OTSAILA	3
	MARTXOA	2
	APIRILA	3
2021	MAIATZA	3
	EKAINA	
	UZTAILA	
	ABUZTUA	
	IRAILA	
<b>GUZTIRA</b>		<b>21</b>

Obesitatea dutenak txertoa hartzeko azpitalde espezifikotzat jo ziren eguna: 2021eko uztailaren 5a.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 1ean.

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren 40/2021 ebazpena, azaroaren 15koa, zeinaren bidez Eduardo Aranaz Jiménez jauna aldi baterako izendatzen baita Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuko Sistemen Ataleko buru.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko uztailaren 26an harturiko erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolaketari buruzko Erregelamenduaren aldaketa onetsi zuen (95. NPAO, 2021-08-06koa). Erregelamendu honen 36. artikulua Sistemen Atala sortzen du, eta xedatzen du bere eginkizunak zuzenean Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuko buruaren agindupean beteko dituela eta atal horren burutza laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera beteko dela, Nafarroako Parlamentuko Teknikarien Kidegoko funtzionarioen artean.

Halaber, arestiko Erregelamenduaren laugarren xedapen gehigarriarekin bat, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioek atalburutzak aldi baterako bete ahal izanen dituzte, legelari nagusiak izendatuta, zeinak kargutik libreki kendu ahal izanen baititu, modu horretan berean.

Sistemen atalburutza merezimendu-lehiaketarako deialdi baten bidez betetzen ez den bitartean, beharrezkoa da funtzio horietan aldi baterako ordeztuko duen teknikaria izendatzea.

Horiek horrela, eta Parlamentuko administrazioaren antolamenduari buruzko Erregelamenduen laugarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezarritakoari jarraikiz,

**EBATZI DUT:**

**1.** Teknikarien Kidegoko funtzionario Eduardo Aranaz Jiménez jauna aldi baterako izendatzea Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuko Sistemen Ataleko buru.

**2.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Legelari nagusia: Silvia Doménech Alegre